

DETEKTIBEA

Helburuak

Parte hartzaileen izenak ikastea.

Parte hartzaile guztiak integratzea eta konfiantza giroa sortzea.

Ahozko adierazpena eta desinhibizioa sustatzea.

Parte hartzaileak

+8

Garapena

Parte hartzaileko bakoitzeko paper bana eta arkatz edo bolaluma bana banatuko ditugu.

Galdera batzuk egingo ditugu, ahots ozenez, eta parte hartzaileek paperean idatziko dute erantzuna. Zera galdetuko diegu, adibidez: adina, gustukoen duten musika estiloa, gustukoen duten kirola, gustukoen duten kolorea, gustura egiten duten gauza bat, etab.

Lau edo bost galdera egin ondoren, orriak tolestu, eta guri itzultzeko eskatuko diegu, eta poltsa edo kutxa batean gordeko ditugu denak.

Amaitutakoan, bakoitzak orri bat ausaz ateratzeko eta bere golkorako irakurtzeko eskatuko diegu.

Ondoren, tarte bat izango dute elkarrekin hitz egiteko: ahalik eta informazio gehien lortzea eta atera duten papera nork idatzia den asmatzea izango da helburua.

Partaideak zenbat diren eta dinamizatzaileak zer behar ikusten dituen, gehiago edo gutxiago luza daiteke jarduera.

Haien ustez papera nori dagokion idazteko eskatuko diegu, paper horretan bertan.

Taldea biribilean jartzera gonbidatuko dugu, zutik edo eserita.

Banan-banan paper guztiak irakurri, eta bakoitza nori dagokion asmatu ote dugun egiaztatuko dugu.

Antolaketa

Dinamizatzaileak dinamika honetan egingo dituen galderak alde aurretik prestatuko dira; parte hartzaileen adinera eta partaide kopurura egokituta egon beharko dute galdera horiek, bai eta unean uneko testuingurura ere.

Jolas eremua

Biribilean zutik jarrita egoteko adinakoa, ondo ikusteko edo entzuteko oztoporik gabekoa.

Denbora

20-30 minutu.

Materiala

Parte hartzaile adina paper eta bolaluma; poltsa bat edo kutxa bat.

Aldaerak

Parte hartzaile bakoitzak bere aukerako ezaugarri pertsonalak idatziko ditu.

Beren antzeko ezaugarriak eta zaletasunak dituzten kideak bilatuko dituzte.

Gomendioak

Jardueraren hasieran, orria izenik gabe bete behar dutela gogorarazi parte hartzaileei.

Taldeko kideei buruz ahalik eta gehien ikastera bultzatu parte hartzaileak.

Hau ez dela lehiaketa bat gogorazi parte hartzaileei.

Ebaluazioa

Erreparatu ea parte hartzaileek elkarren izenak ikasteko bidean aurrerapenik egin ote duten.

Erreparatu ea parte hartzaileen artean harremanak sendotu diren eta konfiantza giroa sortu den.